# Denbora-

## 1 Lotu bikoteak

Arrainak harrapatu ahala piezak sailkatzea gustatzen zaio Praixkuri. Hona arrantzatu dituenak. Lagunduko al diozu balio berekoak lotzen?




## 2 Osatu irudia

Periko musika irakasleak lau musika tresna hauek marraztu ditu. Irudiak, ordea, ez daude osorik. Bilatuko al diozu instrumentu bakoitzari falta zaion zatia?




## 3 Ezberdintasunak

Edabe magikoa prestatzen ari zela bi argazki atera dizkiote Graziana sorginari. Argazki batetik bestera, baina, zazpi gauza aldatu dira. Zein?





# -pasak

## 4 Hitzekin jolasean

Hartu kontuan jarraian proposatzen dizkizugun hizkiak. Hizki horiek erabilita ahalik eta hitz gehien osatzea lortu behar duzu. Eragin buruari!




Erantzunak: **1.-** A-G, E-D, B-F eta H-I. **2.-** a-3, b-4, c-2 eta d-1 **4.-** Patin bat.



1. Berde iluna / 2. Berde argia / 3. Gorria / 4. Horia

## 5 Margotu eta asmatu

Nahi zuen jostailua oparitu diote Aierti urtebetetze egunean. Lauki bakoitza dagokion kolorez margotu, eta jakingo duzu zein den oparia.

## Lurperatutako begizta

Hondartzara joan eta hondarrezko gazteluak egin beharrean, zergatik ez zara ibiltzen bestelako jolasen batean? Hona proposamen dibertigarri bat.

**1** Jolasean hasi aurretik, biribil bat markatu behar da hondarrean. Biribil horren barruan begizta bat ezkutatuko du lagun batek; gainerako jokalariek, noski, beste alde batera begiratu behar dute. Begizta ezkutatzen duen jokalariak hondar pilak eta zuloak egin ditzake biribilaren barruan, gainerako jokalariek begizta non dagoen igar ez dezaten.

**2** Begizta ongi ezkutatuta dagoela esan orduko, gainerako jokalariak biribilera hurreratuko dira. Jokalariak, banaka-banaka, begiztaren bila hasiko dira adartxo baten laguntzaz. Horretarako, adartxoa hondarrean sartu, eta hondar azpitik begizta ateratzen saiatuko da.

**3** Begizta topatzen duen jokalaria arduratuko da begizta berriro ezkutatzeaz.

